

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ITSASONTZIEN HONDAKIN BILTZE-
ETA MANIPULATZE- PLANA EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOAREN
TITULARTASUNEKO PORTUETAN

2020KO ABENDUA

ITSASONTZIEN HONDAKIN BILTZE- ETA MANIPULATZE-PLANA
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN TITULARTASUNEKO
PORTUETAN

AURKIBIDEA

1.- HELBURUA. IKUSPEGI OROKORRA

2.- APLIKAZIO EREMUA

3.- GARAPENA

3.1.- DEFINIZIOAK

3.2.- PLAN HONEN APLIKAZIO-EREMUAN DAUDEN PORTUAK

3.3.- PORTU-INSTALAZIO JASOTZAILEEN MAILAK

3.4.- NORMALKI PORTUA ERABILTZEN DUTEN ITSASONTZIEN ARABERA,
PORTU-INSTALAZIO JASOTZAILEEN BEHARRA EBALUATZEA

3.5- PORTU-INSTALAZIO JASOTZAILEEN MOTA ETA AHALMENEN
DESKRIBAPEN XEHEA

**4.- ITSASONTZIEK ETA ZAMALANEK SORTUTAKO HONDAKINEN
JASOKETA-BILKETA PROZEDURAREN DESKRIBAPEN XEHEA**

5.- TARIFAK ETA KOSTUAK BERRESKURATZEKO SISTEMA

6.- KONTSULTA-PROZEDURAK

6.1.- PORTU-INSTALAZIO HARTZAILEN BALIZKO AKATSEN BERRI
EMATEKO PROZEDURA

6.2.- PORTUKO ERABILTZAILE, HONDAKINEN KUDEAKETARAKO
KONTRISTA, TERMINALETAKO ERAGILE ETA BESTE ALDERDI INTERESATUEKIN
ETENGABEKO KONTSULTA

**7.- ITSASONTZIEK ETA ZAMALANEK SORTUTAKO HONDAKINEN
DESKRIBAPENA ETA TRATAMENDUA**

8.- PLANA EGUNERATZEA

9.- ERABILTZAILEEI INFORMAZIOA EMATEA

10.- PORTUKO INSTALAZIO HARTZAILEEN KOKAPEN PLANOAK

1 GEHIGARRIA: ITSASONTZIEK ETA ZAMALANEK SORTUTAKO, JASOTAKO ETA KUDEATUTAKO ZABORREN MOTA ETA KOPURU KOADROA

2 GEHIGARRIA: BAIMENDUTAKO ENPRESEK ERABILTZEN DITUZTEN BITARTEKOEN LABURPENA

3 GEHIGARRIA: INFORMAZIO OSAGARRIA

4 GEHIGARRIA: AGIRI-EREDU OFIZIALAK

5 GEHIGARRIA: HONDAKINAK BILTZEKO ARDURA DUTEN ENPRESAK

6 GEHIGARRIA: EAEKO PORTUETAN DAUDEN KIROL-ONTZIEN KOPURUA

7 GEHIGARRIA: EAEKO PORTUETAKO ARRANTZA-ONTZIEN KOPURUA

8 GEHIGARRIA: EAEKO PORTUETAN ARRANTZONTZIEK SORTUKO DITUZTEN HONDAKIN TONEN URTEKO AURREIKUSPENA

9 GEHIGARRIA: PORTU INSTALAZIO HARTZAILEEN USTEZKO AKATSAK JAKINARAZTEKO FORMULARIOA

1.- HELBURUA. IKUSPEGI OROKORRA

Itsasontzietako hondakinak jaso eta manipulatzeko Plan honen helburua hurrengoa da: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku dauden portuetan, itsasontziek sortzen dituzten hondakinak biltzeko zerbitzuen kalitate-estandarrak, eta erabiltzaileei eskaintzen zaizkien zerbitzuen estandarrak legeak esandakoa betetzen dutela ziurtatzea, eta, abenduaren 20ko 1381/2002 Errege Dekretuaren eta MARPOL hitzarmenaren arabera, hondakin horiek ingurumenaren aldetik ondo kudeatzen direla bermatzea.

Jasotako hondakin motak eta kopuruak Plan honetako 1. gehigarrian jasotako koadroan daude jasota.

Azpitarratzen da hondakinak ondo kudeatzea, bai itsasontzietan, bai instalazio hartzaileetan, itsas kutsadura, baliabideen agortzea eta klima-aldaketa eragiten duten mehatxuei aurre egiteko estrategiaren parte dela, mundu osoan.

2.- APLIKAZIO EREMUA

Hondakinak jaso eta manipulatzeko planak honako hauek hartzen ditu:

- Euskal Autonomia Erkidegoari transferitutako portuetan geldialdia egiten duten edo jarduten duten **ontzi guztiak**, arrantza-ontziak eta laketontziak barne, edozein bandera dutela ere, salbu eta portu-zerbitzuetan parte hartzen duten ontziak, 2017/352 (EB) Erregelamenduaren 1. artikulua 2. paragrafoaren arabera, eta gerraontziak, itsas unitate laguntzaileak eta, estatu baten jabetzakoak izanik edo haren zerbitzura soilik egonik, oraingoz, izaera ez komertziala gobernu-zerbitzuren bat egiten ari diren ontziak.
- Aurreko paragrafoan aurreikusitako aplikazio eremuan sartutako itsasontziek era normalean eta eskuarki eskala egiten duten Euskal Autonomia Erkidegoari transferitutako **portu guztiak**.
- Itsasontzietan sortutako, zamalanetan sortutako eta MARPOL 73/78/97 hitzarmenaren eranskin teknikoetan jasotako **hondakin guztiei**, beti ere Espainiako Estatuak berretsi eta Estatuako Aldizkari Ofizialean argitaratu baditu.

3.- GARAPENA

Plana garatzeaz eta aplikatzeaz arduratzen den pertsona portuen arloko eginkizunak dituen zuzendaritzako edo administrazio-unitateko zuzendaria da, egitura organikoaren arabera.

3.1.- DEFINIZIOAK

- “Itsasontzi”: itsas ingurunean jarduten duten itsas nabigazioko ontzi mota guztiak, arrantza-ontziak, laketontziak, haltzadiak, aire-labaingailuak, urperagarriak eta bitarteko flotatzaileak barne.

- “Itsasontziek sortutako hondakin”: ontzi baten zerbitzuan edo karga-, deskarga- eta garbiketa-eragiketetan sortzen diren hondakin guztiak, ontziek eragindako kutsadura prebenitzeko nazioarteko hitzarmenaren I., II., IV., V. eta VI. eranskinen aplikazio-eremuan sartzen direnak (MARPOL 73/78/97), bai eta nahi gabe arrantzatutako hondakinak ere.
- “Nahi gabe arrantzatutako hondakinak”: arrantza-eragiketetan sareetan jasotako hondakinak.
- "Karga-hondakinak": zamalanak egin ondoren, ontzietan, sotoetan edo tankeetan geratzen diren ontziratutako edozein karga-materialen hondarrak, karga eta deskargarako soberakinak edo isuriak barne, horiek lehorrak edo hezeak izan edo garbiketako uretan arrastatuak izan, bazter utzita ekortzearen ondoren bizkarrean geratzen den karga-hautsa edo ontziaren kanpoko azaleretan utzitako hautsa.
 - MARPOL hondakinak honakoak dira, besteak beste:
 - MARPOL I. eranskinean jasotakoak: Hidrokarburoak.
 - MARPOL II eranskinean jasotakoak: Soltean garraiatutako itsasontzietako likido kaltegarriak.
 - MARPOL IV eranskinean jasotakoak: itsasontzietako ur zikinak.
 - MARPOL V eranskinean jasotakoak: itsasontzietako hondakin solidoak.
 - MARPOL VI eranskinean jasotakoak: Kutsadura atmosferikoa.
- "Portuko instalazio hartzailea": itsasontziek sortutako hondakinak jasotzeko zerbitzua emateko gai den instalazio finko, flotatzaile edo mugikor oro.
- “Arrantza-ontzi”: arrainak edo itsasoko beste baliabide bizi batzuk harrapatzeko merkataritza-ondorioetarako ekipatutako edo erabilitako ontzi oro
- “Kirol-ontzi”: kirol- edo jolas-jardueretarako erabiltzen den eta merkataritza-jarduerarik egiten ez duen ontzi mota oro, 2,5 metro edo gehiagoko luzera duena, edozein dela propulsiio-bitartekoa.
- “Portua”: hobekuntza-obrak aurkezten dituen leku edo eremu geografiko bat, batez ere itsasontziak jaso ahal izateko diseinatutako ekipamendua duena, baita portuaren jurisdikzioaren barruan ainguralekua ere, baldintza fisiko, natural edo artifizialak eta antolamendu-baldintzak betetzen dituena, itsasontzien portu-trafikoko eragiketak egin ahal izateko, arrantza-ontziak eta laketontziak barne, eta jarduera horiek garatzeko baimena ematen diona administrazio eskudunari.
- “Portuko erakunde kudeatzaile”: portu bat, ontziraleku bat, itsas terminalak eta itsas zabaleko instalazioak administratzeko eta kudeatzeko ardura duen erakunde publikoa, dela zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak kudeatzen duena, dela zeharka, beste edozein kudeaketa-modalitatearen bidez.

3.2.- PLANAREN APLIKAZIO EREMUAN DAUDEN PORTUAK

Euskal Autonomia Erkidegoak ezaugarri oso ezberdinak dituzten 15 portu kudeatzen ditu; portu horiek Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetan daude:

BIZKAIA	GIPUZKOA
Plentzia	Mutriku
Armintza	Deba
Bermeo	Zumaia
Mundaka	Getaria
Elantxobe	Orio
Ea	Donostia
Lekeitio	Hondarribia
Ondarroa	

3.3.- PORTU-INSTALAZIO JASOTZAILEEN MAILAK.

Ontziek edo karga-hondarrek sortutako hondakinak jasotzeko portu-instalazioei buruzko abenduaren 20ko 1381/2002 Errege Dekretua kontuan hartuta, portuko instalazioak honako mailetan sailkatzen dira:

- a) MARPOL I eranskina: MARPOL 73/78 Hitzarmeneko I eranskinaren baitan dauden itsasontzien olioeko zama-hondakinak jasotzeko diren instalazioak. Maila honek beste hiru azpiklase ditu:
 - 1.- A motakoa: Itsasontzien hondakinak, edota petrolio gordina zamaren hondakinak, edota petrolio gordinarekin kutsatuta dagoen lasta-ura jasotzeko dena.
 - 2.- B motakoa: Itsasontzien hondakinak, edota hidrokarburo zamaren hondakinak, edota petrolio gordina ez den eta haren dentsitatea 1 edo gutxiago den beste petrolio produktuekin kutsatuta dagoen lasta-ura jasotzeko dena.
 - 3.- C motakoa: Makina-aretoaren kindurtzatik, edota erregaia eta motorren olioaren arazteko ekipoetatik datozen hondakinak jasotzeko dena.
- b) MARPOL II eranskina: MARPOL 73/78 hitzarmeneko II eranskinaren baitan dauden itsasontzien likido kaltegarriak jasotzeko dena.
- c) MARPOL IV eranskina: MARPOL 73/78 hitzarmeneko IV eranskinaren baitan dauden itsasontzien ur zikinak jasotzeko dena.

- d) MARPOL V eranskina: MARPOL 73/78 hitzarmeneko V eranskinaren baitan dauden itsasontzien zabor solidoak jasotzeko dena.
- e) MARPOL VI eranskina: MARPOL 73/78 hitzarmeneko VI eranskinaren baitan dauden ozono geruza agortzen duten sustantziak eta isurketa keen garbitze-lanetik datozen hondakinak jasotzeko dena.
- f) Beste zaborrak eta hondakinak: Aurreko mailen baitan ez dauden zaborrak edo hondakinak, eta itsasontzietatik atera behar direnak derrigorrean. Maila honen baitan sartzeko dira erabilitako bateriak elektrikoak, itsasontzien konponketa eta mantentze-lanetan sortzen diren hondakinak (isolamendu termikoen forruak, margo estalduraren hondakinak eta beste), eta abar.

3.4. NORMALEAN PORTUA ERABILTZEN DUTEN ITSASONTZIEN ARABERA, PORTU-INSTALAZIO JASOTZAILEEN BEHARRA EBALUATZEA.

Portu guztiak banan-banan aztertuko dira. Erabilera eta arrantza-bolumenaren arabera 3 multzo bereizten dira:

- 1.- Kirol-nabigaziorako ontziak eta arrantzan oso gutxi edo batere ibiltzen diren ontziak hartzen dituzten portu txikiak.

Talde horretan Plentzia, Armintza, Mundaka, Elantxobe, Ea, Lekeitio, Mutriku, Deba, Zumaia, Orío eta Donostiako portuak sartzeko dira. Portu horietan hurrengo portu-instalazio jasotzaileen beharra ezartzen da:

- MARPOL I eranskina. C motakoa.
- MARPOL IV eranskina.
- MARPOL V eranskina.
- Beste zaborrak eta hondakinak.

- 2.- Kirol-nabigaziorako ontziak eta arrantza-ontziak hartzen dituzten portu handiak.

Talde horretan Ondarroa, Getaria eta Hondarribiako portuak sartzeko dira. Portu horietan hurrengo portu-instalazio jasotzaileen beharra ezartzen da:

- MARPOL I eranskina. C motakoa.
- MARPOL IV eranskina.
- MARPOL V eranskina.
- MARPOL VI eranskina.
- Beste zaborrak eta hondakinak.

- 3.- Kirol-ontzientzako, arrantza-ontzientzako eta merkataritzako ontzientzako portuak.

Talde horretan Bermeo sartuko litzateke. Portu horretan hurrengo portu-instalazio jasotzaileen beharra ezartzen da:

- MARPOL I eranskina. B motakoa.

- MARPOL I eranskina. C motakoa.
- MARPOL IV eranskina.
- MARPOL V eranskina.
- MARPOL VI eranskina.
- Beste zaborrak eta hondakinak.

3.5.- PORTU-INSTALAZIO JASOTZAILEEN MOTA ETA AHALMENEN DESKRIBAPEN XEHEA.

Deskribapena aipatutako portuen motaren arabera egiten da:

1. multzoetako portuak:

Portu horiek honako baliabideak dituzte, gutxienez:

- ❖ MARPOL I eranskina. C motakoa:
 - 1.000 litroko zakarrontzi berezia, erabilitako olio jasotzeko.
 - Olio-irazkiak jasotzeko zakarrontzia.
 - Erregai-irazkiak jasotzeko zakarrontzia.
 - Gainera, eta eskatuz gero, ontzi mugikorak edota xurgatzeko kamioiak daude, kindurtzetako ur kutsatua jasotzeko.
- ❖ MARPOL IV eranskina:
 - 200 litroko ontzia itsasontzien ur zikinak jasotzeko.
- ❖ MARPOL V eranskina:
 - 1.000 litroko zakarrontzi urdina, papera eta kartoia jasotzeko.
 - 1.000 litroko zakarrontzi horia, ontziak jasotzeko.
 - 1.000 litroko zakarrontzi berdea, iglu motakoa, beira jasotzeko.
 - 1.000 litroko zakarrontzi marroia, hondakin organikoak jasotzeko.
 - 200 litroko zakarrontzia sukaldeko olio jasotzeko.

Herri barruan dauden portuetan, arriskutsuak ez diren hondakinen biltzea udalarekin adosten da, biena jartzeko lekurik egon ezean.

- ❖ Beste zaborrak eta hondakinak:

Erabilitako bateriak, margo estalduren hondakinak, Kutsatutako metalezko ontziak, Kutsatutako plastikozko ontziak eta kutsatutako xurgatzaileak, irazkiak eta piltzarrak bereziki ezarritako tokian utziko dira, eta egunero jaso. Hondakin horiek jasotzeko, aldeztu aurretik eskatu behar da.

2. multzoko portuak:

Portu horiek puntu berde edo Garbigune bat izango dute, atrakatzeko gunean, zaborrak bildu eta sailkatzeko. Garbigune horrek honako baliabideak izango ditu, gutxienez:

❖ MARPOL I eranskina. C motakoa:

- Olio bidietan jarriko da, edo OGOH (gehienezko 4.000 litroko edukiera duen Ontziratu Gabeko gaienezko Ontzi Handia, zein 3.500 litroa heldutakoan hustu egiten da) batera ponpatuko da, edota zuzenean, ontziratu gabe xurgatuko da. Kindurtzetako urak, eskatuz gero, OGOH batera ponpatuko dira, edo, bestela, zuzenean xurgatuko dira.
- Olio-irazkiak jasotzeko zakarrontzia.
- Erregai-irazkiak jasotzeko zakarrontzia.

❖ MARPOL IV eranskina:

- 1.000 litroko zakarrontzia, itsasontzien ur zikinak jasotzeko.

❖ MARPOL V eranskina:

- Materia organikoaren kudeaketa (arrain-hondarrak). 1.000 l-ko edukiontzia daude, erabiltzaileek, alde aurretik eskatuta, hondakinak utz ditzaten, eta hortik Garbigunera eramateko. Gainera, garbiketako kamioiak ere eramaten dira portuetara, zaborrak zuzenean bertan uzteko.
- Ontzien kudeaketa (polietilenozko eta zurezko kutxak, sareak eta arrantzako beste tresna batzuk). Hondakin mota hori batzeko edukiontzi horiak daude jarrita; hondakinak garbigunera eramaten dira 10/12 m³-ko edukiontzietan sartu eta ondoren birziklatzeko zentrorra eramateko.
- Portu horietan kontuan izaten da berdel, antxoia edo hegaluzearen kanpaina zehar egun batzuetan mugimendu asko izaten dela eta beraz, hondakin asko pilatu daitekeela.
- 1.000 litroko zakarrontzi urdina, papera eta kartoia jasotzeko.
- 1.000 litroko zakarrontzi berdea, iglu motakoa, beira jasotzeko.
- 1.000 litroko zakarrontzi marroia, hondakin organikoak jasotzeko.
- 200 litroko zakarrontzia sukaldeko olio jasotzeko.

❖ MARPOL VI eranskina:

- Aktibatutako ikatz irazkiak jasotzeko zakarrontziak bereziki ezarritako tokian uzten dira, eta alde aurretik eskatu behar da.

❖ Beste zaborrak eta hondakinak:

- Erabilitako bateriak jasotzeko zakarrontzi bat.
- Margo estalduren hondakinak jasotzeko zakarrontzi bat.
- Kutsatutako metalezko ontziak jasotzeko zakarrontzi bat.
- Kutsatutako plastikozko ontziak jasotzeko zakarrontzi bat.
- Kutsatutako xurgatzaileak, irazkiak eta piltzarrak jasotzeko zakarrontzi bat.

3. multzoko portuak:

2. multzoko portuetan egiten den hondakinen kudeaketaz aparte, 3. multzoko portuetan MARPOL hitzarmenean eta hitzarmenaren eranskinetan merkataritzako ontzientzat adierazitako hondakinak bildu eta kudeatuko dira.

Zerbitzua urtean 365 egunetan egongo da erabilgarri, aurrez eskatuta; lanegunetan (astelehenetik larunbatera) 8 ordu lehenago, eta igande eta jaietan, 48 ordu lehenago.

Portu hauek puntu berde edo Garbigune bat izan behar dute, atrakatzeko gunean, zaborrak bildu eta sailkatzeko. Garbigune honek honako baliabideak izan behar ditu, gutxienez:

- ❖ MARPOL I eranskina. B motakoa:
 - Hondakin hauek zuzenean xurgatuko dira, eta gero tratamendu lekura eramango dira.
- ❖ MARPOL I eranskina. C motakoa:
 - Olio bidoietan jarriko da, edo OGOH (4.000 litroko zama erabilgarria duen Ontziratutako Gabeko gaintzako Ontzi Handia, zein 3.500 litrorako heldutakoan hustu egiten da) batera ponpatuko da, edota zuzenean, ontziratutako gabe xurgatuko da. Kindurtzetako urak, eskatuz gero, OGOH batera ponpatuko dira, edo, bestela, zuzenean xurgatuko dira.
 - Olio-irazkiak jasotzeko zakarrontzia.
 - Erregai-irazkiak jasotzeko zakarrontzia.
- ❖ MARPOL IV eranskina:
 - 1.000 litroko zakarrontzia, itsasontzien ur zikinak jasotzeko.
- ❖ MARPOL V eranskina:
 - Materia organikoaren kudeaketa (arrain-hondarrak). 1.000 l-ko edukiontzia daude, erabiltzaileek, alde aurretik eskatuta, hondakinak utzi ditzaten, eta hortik Garbigunera eramateko. Gainera, garbiketako kamioiak ere eramaten dira portuetara, zaborrak zuzenean bertan uzteko.
 - Ontzien kudeaketa (polietilenoazko eta zurezko kutxak, sareak eta arrantzako beste tresna batzuk). Hondakin mota hori batzeko edukiontzia horiak daude jarrita; hondakinak Garbigunera eramaten dira 10/12 m³-ko edukiontzietan sartu eta ondoren birziklatzeko zentrori eramateko.
 - Portu horietan kontuan izaten da berdel, antxoia edo hegaluzearen kanpaina zehar egun batzuetan mugimendu asko izaten dela eta beraz, hondakin asko pilatu daitekeela.
 - 1.000 litroko zakarrontzi urdina, papera eta kartoia jasotzeko.
 - 1.000 litroko zakarrontzi berdea, iglu motakoa, beira jasotzeko.
 - 1.000 litroko zakarrontzi marroia, hondakin organikoak jasotzeko.
 - 200 litroko zakarrontzia sukaldeko olioia jasotzeko.
- ❖ MARPOL VI eranskina:
 - Aktibatutako ikatz irazkiak jasotzeko zakarrontziak egongo dira. Alde aurretik eskatu behar da.
- ❖ Beste zaborrak eta hondakinak:

- Erabilitako bateriak jasotzeko zakarrontzi bat.
- Margo estalduren hondakinak jasotzeko zakarrontzi bat.
- Kutsatutako metalezko ontziak jasotzeko zakarrontzi bat.
- Kutsatutako plastikozko ontziak jasotzeko zakarrontzi bat.
- Kutsatutako xurgatzaileak, irazkiak eta piltzak jasotzeko zakarrontzi bat.

4.- ITSASONTZIEK ETA ZAMALANEK SORTUTAKO HONDAKINEN JASOTZE ETA BILTZE PROZEDURAREN DESKRIKAPEN XEHEA.

Portu motaren arabera, prozedura ezberdina da:

1. multzoko portuak:

Prozedura honakoa da:

- a) Erabiltzaileak Portuko Erakunde Kudeatzaileari eskatuko dio baimena zaborrak zakarrontzietan lagatzeko (4 Gehigarria). Erakunde horrek zaborrak jasotzeko kontratatutako enpresari (5 Gehigarria) jakinaraziko dio, eta horrek, zaborrak lagatzerakoan, zamak eta kopuruak egiaztatuko ditu, eta dagokion ziurtagiri ofiziala emango dio (5 Gehigarria).
- b) Aldian behin edukiontzia dagozkien kamioietara husten dira. Maiztasuna aldatu egiten da hondakinaren arabera: organikoak egunero jasoko dira, eta gainontzekoak beharren arabera.
- c) Hondakinaren egiaztatzea eta sailkatzea.
- d) Garraioa:
 - Baimendutako zabortegira.
 - Birziklatzeko zentrora.
 - Tratatzeko zentrora.
- Zaborrak zakarrontzietan lagatzen den bakoitzean, bai bitarteko propioekin, bai beste norbaitenak erabilia, ziurtagiria emango da. Ziurtagiri horretan, zamaren kopurua eta kalitatea, data, itsasontziaren izena eta matrikula adieraziko dira, eredu ofiziala erabilia (4 Gehigarria). Urte bukaeran, eskatuz gero, MARPOL Hondakinak Eman izanaren Agiri ofiziala emango zaie itsasontziei, Itsas Kapitaintzan aurkezteko. Arrain freskoa arrantzatzen duten itsasontziek eta, gehienez 12 pertsonarentzako baimena duten aisia edo kirol-ontziek, hondakinak eman nahi izanaren jakinarazte laburra egingo dute, ziurtagiri eredu ofiziala erabilia (4 Gehigarria).

2. multzoko portuak:

1. multzoko portuetan ezarritakoaz gain, honakoa:

- arrain-hondarrak eta ontzikiak, garbiketako zerbitzuek bilduko dituzte egunero, gero zabortegira eramateko.

3. multzoko portuak:

2. multzoko portuetan ezarritakoaz gain, honakoa:

- Merkataritzako ontziek MARPOL hondakinen kudeaketa eska dezakete, urtean 365 egunetan. Eskaera honela egin behar da:

- A.- Itsasontzia portura iritsi baino aurreikusitako hogeita lau ordu lehenago, edo
- B.- Helmuga portua zehazten den unetik, informazio hori hogeita lau ordu baino gutxiagoko epean jakinez gero, edo
- C.- Bidaia hogeita lau ordu baino gutxiagokoa bada, irteera portutik ateratzean, asko jota.

- Eskaera eredu ofizialean egingo da (4 Gehigarria).

- Horretaz aparte, arrantza-ontzietako arrain-hondarrak eta ontzikiak garbiketa-zerbitzuek eramango dituzte, egun berean, eta dagokion zabortegira bidaliko dituzte.

- Karga-hondakinek eta merkataritzako ontzien estiba-lanetan sortutako hondakinek garbiketa-zerbitzuek eramango dituzte, egun berean, eta dagokion zabortegira bidaliko dituzte.

ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK:

Portu-instalazio hartzaileek, hondakinak biltzeko beren zerbitzuak erabiltzen dituzten ontzi guztiei MARPOL hondakinak eman izanaren egiaztagiri bat emango diete, eredu ofiziala erabilita (4 Gehigarria).

Arrain freskotarako ontziak eta gehienez ere 12 pertsonarentzako baimena duten aisia edo kirol-ontziak, egoitza-portuko itsas-kapitaintzan hondakin mota guztiak eman izana berretsiko dute urtero. Horretarako portu-instalazio hartzaileak, eskatuz gero, egiaztagiri bakarra egingo du urtean; non aldiro hondakinak entregatzen dituela adieraziko den. Eskatu ezean, aldizka emandako egiaztagiriak aurkeztuko ditu.

Nolanahi ere, hondakinak entregatzen direnean, nahiz norberaren baliabideak nahiz besterenak erabilia, bukatutakoan, itsasontzian eragiketaren erantzukizuna duen pertsonak egiaztagiri bat eskatu beharko dio enpresa hartzaileari (5 Gehigarria); non zenbat eta noiz jaso diren eta zein itsasontzitatik jaso diren zehaztu beharko den. Portu-instalazio hartzaileetako langileek ontzietan ematen zaizkien zerbitzu guztien erregistro bat eramango dute, eta gutxienez datu hauek jaso beharko dira bertan:

- Zerbitzua zein egunetan eman zen, ontziaren izena eta bandera, eta jasotako hondakin mota eta kopurua.

Bertan erregistratutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira. Egiatzko kopuruak tratamendu zentroan lortzen dira, pisatzeko momentuan, eta IKS-eeM aplikazioan geratzen dira grabatuta. Aplikazio hori Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak duen sistema da, eta Ingurumen Informazioa Kudeatzeko erabiltzen da.

Zaborrak jasotzeko kontratatutako enpresak (5 Gehigarria) jasotako hondakinen informazioa bidaliko du, hileroko egitura organikoaren arabera portuen gaineko funtzioak dagozkion Zuzendaritzara edo administrazio-unitatera. Horrek, gutxienez urtean behin, eta adostutako prozedura erabilia, Itsas Kapitaintzei bidaliko die informazioa. Informazio hori laburtuta emango da ere bai, 1 Gehigarriko koadroa erabilia.

Balizko akatsak portuen gaineko funtzioak dagozkion Zuzendaritzari edo administrazio-unitateri jakinaraziko zaizkio. Horrek itsasontziei emandako zerbitzuaren balizko akatsei buruz aurkeztutako erreklamazioen erregistro bat eramango du, eta, urtero, Itsas Kapitaintzei bidaliko zaio, dagozkion arrazoibideekin batera.

5.- TARIFAK ETA KOSTUAK BERRESKURATZEKO SISTEMA.

-2019/883 Zuzentarauak eskatzen duen bezala, ontziek sortutako hondakinak entregatzeko eta tratatzeko portu-instalazio hartzaileen kudeaketa-kostuak zeharka kobratzen den tarifa baten bidez jasango direla bermatzen da. Kostuak ez dira disuasio-kostuak, eta ez dago kostu gehigarririk entregatutako hondakinen bolumenean oinarrituta, bolumen horrek zuzentarau horren 2. eranskinean ezarritako formularioan adierazitako biltegiratzeko gehieneko edukiera espezifikoa gainditzen duenean izan ezik.

Tarifa hori itsasontziei kobratzen zaie, portuko instalazio hartzaileari hondakinak eman ala ez.

Tarifa hori kobratuta, kostuak berreskuratuko direla ziurtatzen du, besteak beste, honako hauek:

- ❖ Zuzeneko kostuak: ontziek sortutako hondakinak entregatzearen ondoriozko zuzeneko kostu operatiboak.
- ❖ Zeharkako kostuak: sistema portuan kudeatzearen ondoriozko zeharkako administrazio-kostuak.

Portu Administrazioan ez dago hondakinak kudeatzeko programetatik eta finantzaketa nazional edo erregionaletik datorren diru-sarrerara garbirik.

Zeharkako tarifak ez ditu barne hartzen ihes-gasen garbiketa-sistemen hondakinak, horien kostuak entregatutako hondakin-mota eta -kantitateen arabera estaltzen baitira.

6.- KONTSULTA-PROZEDURAK.

6.1.- PORTU INSTALAZIO HARTZAILEEN BALIZKO AKATSEN BERRI EMATEKO PROZEDURA.

Komunikazio-eredu ofizial bat dago (9. gehigarria).

Hutsegiteen jakinarazpena jaso ondoren, Portu Administrazioak beharrezko informazioa bilduko dio zerbitzua ematen duen enpresari eta, hala badagokio, Itsas Kapitaintzari, eta hari jakinaraziko dio intzidentea, ondorio egokiak izan ditzan.

Jasotako informazioa aztertu ondoren, Portu Administrazioak neurri hauek hartu ahal izango ditu, besteak beste, eta interesdunei jakinaraziko zaizkie:

- Zehapen-espedientea hastea abenduaren 20ko 1381/2002 Errege Dekretuan eta Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilar buruzko azaroaren 24ko 27/1992 Legean ezarritako betebeharrak betetzen ez badira.

- Anomalia eragin duen zerbitzua emateko baimena duen enpresari eskatzea zerbitzu horrek behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko neurri egokiak har ditzan.

Aukeran, Portu Administrazioari jakinarazi ahal izango zaizkio portuko instalazio hartzaileetan hautemandako akatsak, hainbat komunikazio-bideren bidez:

- Gutuna: Zuzenean
 - ❖ Kale Nagusia, 85
48011 Bilbo
(Bizkaia)
 - ❖ Andia, 13
20004 Donostia-San Sebastián
(Gipuzkoa)
 - ❖ Ramiro de Maeztu, 10 behea
01008 Vitoria-Gasteiz
(Araba)
- Telegram: 688671234
- E-maila, @euskadi.eus postaren bitartez
- Twitter: @zuzenean012
- Telefonoak:
 - ❖ 945-01-80-00
- Web ataria: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/zuzenean-herritarrentzako-zerbitzua/>

Alderdiak edo erabiltzaileek eskatutako aurreko prozeduraz gain, egon daitezkeen akatsak honela aztertuko dira:

Baimendutako enpresak (5 Gehigarria) bilera bat egingo du, hilero, kasuan kasuko Portuko Erakunde Kudeatzaileko arduradunekin.

Akatsak egiaztatzeko/aldatzeko/hobetzeko prozedura honakoa izango da:

- ❖ Akatsa identifikatu. Akatsaren jatorria:
 - Hondakinak ez dira bildu.
 - Erabiltzailearen erreklamazioa.
 - Kontrolatu gabeko isurtzeak.
 - Beste batzuk.
- ❖ Instalazioak eta horien ahalmenak egiaztatu.
- ❖ Langile kopurua nahikoa den egiaztatu.
- ❖ Neurri zuzentzaileen jarraitzea.
- ❖ Egiaztatzea.

6.2.- PORTUKO ERABILTZAILE, HONDAKINEN KUDEAKETARAKO KONTRATISTA, TERMINALETAKO ERAGILE ETA BESTE ALDERDI INTERESATUEKIN ETENGABEKO KONTSULTA.

Bilketaren ardura duen enpresak (5. eranskina) hilean behin bilera bat egingo du kasuan kasuko portuko arduradunekin, iradokizunak, kontsultak, aldaketak eta hobekuntzak

proposatzeko, akatsak eta neurri zuzentzaileak aztertzeko, etab. Hala ere, edozein unetan eta aurreko atalean ezarritako bideetatik, komunikazioa ezar daiteke bi norabideetan.

Erabiltzaileak edo haien ordezkariak, zamaketariak, itsas agintaritza, enpresa emakidadunak eta abar hilean behin bilduko dira kasuan kasuko portuko arduradunekin. Hala ere, edozein unetan eta aurreko atalean ezarritako bideetatik, komunikazioa ezar daiteke bi norabideetan.

7.- ITSASONTZIEK ETA ZAMALAN EK SORTUTAKO HONDAKINEN DESKRIBAPENA ETA TRATAMENDUA.

Portu batzuetan badago zabor batzuk aurrez tratatzeko ekiporik.

Edukiontziak eramateko moduko kamioi bat arduratuko da portuetan beteta dauden edukiontziak kentzeaz, eta hondakin motaren arabera hondakin kudeatzaile batera edo bestera eramango ditu:

Zaborren trazabilitatea, hondakinak deuseztatze arte, IKS-eeM aplikazioaren bitartez bermatuko da. Aplikazio hori Ingurumen Informazioa Kudeatzeko erabiltzen da, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak Euskadiko Erkidego Autonomoko erakundeen, eta, orokorrean, biztanleen eskutan jartzen duen sistema da, soilik bitarteko telematikoak erabilia, informazio-trukaketa egiteko. Horregatik, kontratatutako enpresa (5 Gehigarria) Portu Erakunde Kudeatzailearekin jarriko da harremanetan eta hondakina jasotze-prozedura hasiko da, hondakina esandako aplikazioan sartuz, Garraiatzeko Jakinarazpen baten bitartez (GJ). Sistemak berak hondakina deuseztatu arte emandako pausoak jakinarazten ditu, honako agirietan: Kontrola eta Jarraipen Agiria (KJA), Onartzeko Agiria (OA) arduradunak jasotzen dituenak. Itsasontziek sortzen dituzten hondakin guztiak aplikazioan sartuta daude, Onartzeko Eskiera (OE) baten bitartez. Horrek ziurtatzen du hondakin orok garraiatzeko eta tratatzeko baimena baduela. Hondakinak eta haien Europako Hondakin Kodeak (EHK) honako hauek dira:

HONDAKIN EZ ARRISKUTSUAK EHK KODEA

- Egurra.	200138
- Bolumen handikoak (sareak).	200307
- Papera eta kartoia.	200101
- Metala eta txatarra.	150104
- Beirazko ontziak.	150107
- Plastikozko ontziak.	150102
- Hondakin organikoak.	200108
- Ur zikinak.	200304
- Etxeko olioak	200125

HONDAKIN ARRISKUTSUAK EHK KODEA

- Motorren erabilitako olioak.	130208
- Kutsatutako metalezko ontziak.	150110
- Kutsatutako plastikozko ontziak.	150110

- Erabilitako berunezko bateriak.	160601
- Erabilitako Ni-Cd-zko bateriak.	160602
- Kutsatutako xurgatzaileak, iragazkiak eta piltzarrak.	150202
- Kindurtzetako olioak.	130402
- Olio iragazkiak.	160107
- Erregai iragazkiak	160121
- Margo estalduren hondakinak	080117

8.- PLANA EGUNERATZEA.

Portuen gaineko funtzioak dagozkion Zuzendaritzak edo administrazio-unitateak, gutxienez, bost urtean behin, eguneratuko du Itsasontzietatik Jasotako Hondakinen Biltze- eta Manipulatze-Plana, eta, betiere, zerbitzuaren funtzionamenduari nabarmen eragiten dioten aldaketarik badago.

9.- ERABILTZAILEEI INFORMAZIOA EMATEA

1381/2002 Errege Dekretuaren arabera, honako informazio hau jarri beharko da erabiltzaileen eskura:


- Ontziek sortutako hondakinak eta karga-hondakinak behar bezala entregatzearen funtsezko garrantziari buruzko aipamen laburra (1. atala).
- Kai bakoitzari dagozkion portu-instalazio hartzaileen egoera, erraz aurkitzeko diagrama edo mapa batekin (10. atala).
- Ontziek sortutako hondakinen eta normalean tratatutako karga-hondakinen zerrenda. (7. atala).
- Harremanetarako guneen, operadoreen eta eskainitako zerbitzuen zerrenda, bai eta portuko informazio-bulegoarena ere (3. eta 5. eranskinak).
- Entregatzeko prozeduren deskribapena (4. atala).
- Tarifa-araubidearen deskribapena (5. atala).
- Portuko instalazio hartzaileen ustezko akatsak jakinarazteko prozedurak (6.1 atala).

Informazio hori ingelesez idatzi eta banatuko zaie espainiera ezagutzen ez duten atzerriko ontziei.


2019/883 Zuzentarauaren arabera, gainera, honako hau:

- Portuko instalazio hartzaileak irekitzeko ordutegia (ez da beharrezkoa, hondakinak lagatzea aurrez adostu behar baita).
- Ontzietatik jasotako eta instalazioetan manipulaturako hondakin moten eta kopuruen ikuspegi orokorra (1. atala eta 1. eranskina).
- Kostuak berreskuratzeko sistemen deskribapena, Zuzentarauaren 4. eranskinean aipatutako hondakinak kudeatzeko araubideak eta finantzaketa barne (5. atala).

10.- PORTUKO INSTALAZIO HARTZAILEEN KOKAPEN PLANOAK



<p>PROYECTO: MAPA DE OBRAS</p> <p>FECHA: 13/11/2013</p> <p>ESCALA: 1:4000</p>	<p>PROYECTO: MAPA DE OBRAS</p> <p>FECHA: 13/11/2013</p> <p>ESCALA: 1:4000</p>	<p>PROYECTO: MAPA DE OBRAS</p> <p>FECHA: 13/11/2013</p> <p>ESCALA: 1:4000</p>	<p>PROYECTO: MAPA DE OBRAS</p> <p>FECHA: 13/11/2013</p> <p>ESCALA: 1:4000</p>	<p>PROYECTO: MAPA DE OBRAS</p> <p>FECHA: 13/11/2013</p> <p>ESCALA: 1:4000</p>
<p>BERMEO</p>				
<p>TRANSPORTE Y LOGÍSTICA</p> <p>PLANO DE ZONAS DE TRANSPORTE Y LOGÍSTICA</p>				
<p>PORTUO JABARIS PUBLIKOKO</p> <p>DOMINIO PUBLICO PORTUARIKO</p>				
<p>1:4000</p>				
<p>GOBIERNO VASCO</p> <p>GOBIERNO VASCO</p>				



ZONA TRANSFERENTZIA LAXA (PARENTISO)
 IZUL 405-180
 JAGUR TRANSFERENTZIA LAXA (PORTUARIA)
 180-244 ETZ.

LINETU PORTUARIA (GOBIERNO VASCO)
 ERREKIA JABARIEN PORTUARIA
 ZONA TRANSFERENTZIA LAXA (PARENTISO)
 JAGUR TRANSFERENTZIA LAXA (PORTUARIA)
 180-244 ETZ.


EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO
 DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
 DIRECCIÓN GENERAL DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
 DIRECCIÓN GENERAL DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
 DIRECCIÓN GENERAL DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

ESCALA GRÁFICA
 1:1000
 0 10 20m

PORTU JABARI PUBLIKOIA
 DOMINIO PÚBLICO PORTUARIO

TRANSPARENCIA ETZ. ATZOPORREN MUSEIN PLANOKA/
 PLANO DE LINEAS DE TRANSPARENCIA Y ASOCIACIONES

MUNDAKA
 L-DPP-15-014A
 FOLIO 12
 1 de 1



PROYECTO:	ELANTXOBE
FECHA:	11/05/2011
HOJA:	1 de 1
PROYECTISTA:	KOJPA-15013-A

TIPO DE OBRA:	PLANO DE LINEAS DE TRANFENCIA Y ASORIPCIONES
TIPO DE OBRA:	TRANSPARENZIA ET AITORPENEN MUGEN PLANOKA
TIPO DE OBRA:	TRANSPARENZIA ET AITORPENEN MUGEN PLANOKA

PROYECTO:	PORTUARI JA BARI PUBLIKOIA
PROYECTO:	DOMINIO PUBLICO PORTUARIO
PROYECTO:	DOMINIO PUBLICO PORTUARIO

ESCALA:	1:1000
ESCALA:	1:1000


PROYECTO:	PORTUARI JA BARI PUBLIKOIA
PROYECTO:	DOMINIO PUBLICO PORTUARIO


EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Departamento de Infraestructuras y Transportes

Departamento de Infraestructuras y Transportes

Departamento de Infraestructuras y Transportes





PROYECTO	PROYECTO DE ORDENANZA DE INGENIERIA DE PUERTO
ACTA DE ADOPTACION	ACTA DE ADOPTACION
FECHA DE ADOPTACION	1987
FECHA DE ADOPTACION	1987
FECHA DE ADOPTACION	1987
FECHA DE ADOPTACION	1987
FECHA DE ADOPTACION	1987
FECHA DE ADOPTACION	1987
FECHA DE ADOPTACION	1987

H-DPP-15-014
 PLAN 9
 1 2 3

LEKEITIO

PORTUOKO JABARI PUBLIKOIA
 DOMINIO PUBLICO PORTUARIO


TRANFERENTIA ET AZKOPPEN MUGEN PLANOKI
 PLANO DE LINEAS DE TRANSFERENCIA Y ADOSACIONES

ESCALA GRÁFICA
 1:2500

EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO

LEGENDA

- LINEA TRANSFERENTIA LAZAR (PUERTO) KALIR TRANSFERENTIAZ ERREKIA/PORTUARIK ERREKIA HETA
- ZONA TRANSFERENTIA LAZAR (PUERTO) ALTA PLANO DE INGENIERIA SA/ALTA PLANO DE INGENIERIA PORTUARIK ERREKIA HETA LAZAR
- ZONA ADOSATU LAZAR (PUERTO) ALTA PLANO DE INGENIERIA SA/ALTA PLANO DE INGENIERIA PORTUARIK ERREKIA HETA LAZAR





 I.M.E. FORTALEZAS DEL GOBIERNO VASCO

 SERVICIO DE INFORMACIÓN DEL TERRITORIO


 ZONA TRANSITORIA A LA CARTA PUZOSTRE


 ZONA TRANSITORIA A LA CARTA PUERTO DE GALDAKOZ

 PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA

 DE ONDARROA (E-48.008)

A. ANEXO 1 DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE ONDARROA	PLAN DE ORDENACIÓN URBANA	PLAN DE ORDENACIÓN URBANA	PLAN DE ORDENACIÓN URBANA	PLAN DE ORDENACIÓN URBANA
	PLAN DE ORDENACIÓN URBANA	PLAN DE ORDENACIÓN URBANA	PLAN DE ORDENACIÓN URBANA	PLAN DE ORDENACIÓN URBANA
	PLAN DE ORDENACIÓN URBANA	PLAN DE ORDENACIÓN URBANA	PLAN DE ORDENACIÓN URBANA	PLAN DE ORDENACIÓN URBANA
PROYECTO DE ORDENACIÓN URBANA DE ONDARROA		PLAN DE ORDENACIÓN URBANA		PLAN DE ORDENACIÓN URBANA
PLAN DE ORDENACIÓN URBANA DE ONDARROA		PLAN DE ORDENACIÓN URBANA		PLAN DE ORDENACIÓN URBANA
PLAN DE ORDENACIÓN URBANA DE ONDARROA		PLAN DE ORDENACIÓN URBANA		PLAN DE ORDENACIÓN URBANA





E-DPP-18-007-S	
PLANO 5	PLANO 1
PLANO 2	PLANO 3
PLANO 4	PLANO 6
PLANO 7	PLANO 8
PLANO 9	PLANO 10
PLANO 11	PLANO 12
PLANO 13	PLANO 14
PLANO 15	PLANO 16
PLANO 17	PLANO 18
PLANO 19	PLANO 20
PLANO 21	PLANO 22
PLANO 23	PLANO 24
PLANO 25	PLANO 26
PLANO 27	PLANO 28
PLANO 29	PLANO 30
PLANO 31	PLANO 32
PLANO 33	PLANO 34
PLANO 35	PLANO 36
PLANO 37	PLANO 38
PLANO 39	PLANO 40
PLANO 41	PLANO 42
PLANO 43	PLANO 44
PLANO 45	PLANO 46
PLANO 47	PLANO 48
PLANO 49	PLANO 50
PLANO 51	PLANO 52
PLANO 53	PLANO 54
PLANO 55	PLANO 56
PLANO 57	PLANO 58
PLANO 59	PLANO 60
PLANO 61	PLANO 62
PLANO 63	PLANO 64
PLANO 65	PLANO 66
PLANO 67	PLANO 68
PLANO 69	PLANO 70
PLANO 71	PLANO 72
PLANO 73	PLANO 74
PLANO 75	PLANO 76
PLANO 77	PLANO 78
PLANO 79	PLANO 80
PLANO 81	PLANO 82
PLANO 83	PLANO 84
PLANO 85	PLANO 86
PLANO 87	PLANO 88
PLANO 89	PLANO 90
PLANO 91	PLANO 92
PLANO 93	PLANO 94
PLANO 95	PLANO 96
PLANO 97	PLANO 98
PLANO 99	PLANO 100

ZUMAIA

TRANFERENTZIA ETA TOKIFEREN MUSEU PLANOAN PLANO DE LINEAS DE TRANFERENTZIA Y ADOSCOIONES

PORTUARIKO JABARI PUBLIKOIA DOMINIO PUBLICO PORTUARIO

GOBIERNO VASCO


EUSKO JAURLARITZA


GOBIERNO VASCO


EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA







1 Gehigarria:

ITSASONTZIEK ETA ZAMALANEK SORTUTAKO, JASOTAKO ETA KUDEATUTAKO ZABORREN MOTA ETA KOPURU KOADROA

MES	MARPOL I		MARPOL IV				MARPOL V				BESTELAKOAK				
	B (Acetes usados de motor 130208) 130208	C (Acetes de sabinas 130402, filtros de aceite 160107, filtros de combustible 160121) 130402, 160107, 160121	Residuos orgánicos 200108	Acete doméstico 200125	Envases de plástico 150102	Papel y cartón 200101	Envases de vidrio 150107	Madera 200138	Voluminosos (Redes) 200307	Metal y chatarra 150104	Envases metálicos contaminados 150110	Envases de plástico contaminados 150110	Resos de revestimientos de pinturas 080117	Baterías usadas de Ni-Cd 060602	Baterías usadas de plomo 160601
PUERTOS	m3	m3/Lds.	kg	l	kg	kg	kg	kg	m3	kg	kg	kg	Uds.	kg	Uds.
TIPO 1															
BIZKAIA															
Plentzia															
Arminiza															
Mundaka															
Elantxobe															
Ea															
Lekeito															
GIPIZKOA															
Mutrikun															
Deba															
Zumaia															
Orbi															
Donostia															
TIPO 2															
BIZKAIA															
Ondarroa															
GIPIZKOA															
Getariá															
Hondarribia															
TIPO 4															
BIZKAIA															
Bermeo															
TOTAL	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00

2 Gehigarria:

BAIMENDUTAKO ENPRESEK ERABILTZEN DITUZTEN BITARTEKOEN LABURPENA

U.T.E. GIPUZKOAKO PORTUAK:

- 5 Katamaran. (Bat alokatuta).
- 2 Gurdi katamaranak eramateko.
- Johnston CN 200: E-9382-BFP kale-garbigailu 1.
- Johnston CN 200: E-1059-BFN kale-garbigailu 1.
- MFH: E-7614-BBT kale-garbigailu 1.
- 13 Garbiketa-gurdi.
- 5 Putzagailu.
- 18 Erratza.
- Hipoklorito.
- Dispertsatzaile.
- Urezttagailua.
- Olioa.
- Gasolina.
- Arraspa.
- 3 Motozerra.
- 2 Sasi-garbigailu.
- 7 Telefono.
- Lorazaintza-guraize.
- Piaggio Porter: 0667-FXR kamioneta 1.
- Renault Maxity: 1859-GTG kamioi 1.
- Renault Maxity: 6299-GSF kamioi 1.
- Renault Maxity: 1817-GHT kamioi 1.
- Mercedes kontenedore-eramailea: 1710-GTN. Hiab garabiakin.
- Hidrogarbigailu 1.
- Scania kamioi 1, zorua urez garbitzeko. SS-9394-BF.
- Peugeot Partner 4759-GGY, ikusketarako kotxe1.
- Dacia Logan 5086-GSP, ikusketarako kotxe 1.

BIDEZAIN S.L.:

- Seacleaner litoral 10-D garbitzeko itsasontzi 1.
- Seacleaner playas 6-FB garbitzeko itsasontzi 1.
- Broadway Senior 2000 kale garbigailua.
- Swingo 250 kale garbigailua.
- Biltzeko eta trinkotzeko kamio 1.
- Garabi-kamio gaineko olioentzako ontzi 1.
- Kontenedore eramaile/iraultzaile kamioirako ontzi 1.
